

URDAIBAI

2023
zenb. 33
.....

©MAGAZINE



**HEZKIDETZA,
DESBARDINTASUNETATIK
ABIATUTA
BARDINTASUNEAN HEZI**

| GARBILEKUAK, ONDAREA ETA MEMORIA

| ALKARRIZKETA, MARIA OIANGUREN,
GERNIKA GOGORATUZ

| MUNDAKAKO SANTA KATALINA

| MARIGORRINGO, KAKARRALDO
MAITAGARRIAK

| KLARATARRAK, SEI MENDEKO
HISTORIAREN AMAIERA

| ARTEAN, AMAIA ABERASTURI, AKTOREA

Kutxabankek bere dibidendu osoa BBK,
Kutxa eta Vital Fundazioei bideratzen die.

[1.200 milioi baino gehiago Euskadiko gizarte proiektuetara, 2012tik.]



BARDINTASUNERAKO PAUSOAK

Espiritu morea da nagusi Urdaibai Magazine 2023 aldizkaria-
ren hiru hilean behingo edizinoari hasiera emoten deuteson
zenbaki honen kolore "paletan". Errespetuaren paletan Urdai-
bai Magazineko zenbaki honek aldarrikatzen dauen bardinta-
sunaren itxaropena hazten da. Martxoaren 8a presente egon da
aldizkari hau sortzeko prozesuan, ikuspegi globalean, eta
gaien analisi eta aukeraketan. Poztu egiten gara, bizitzaren
arloan guztietan pertsonen arteko bardintasunerako eskubide
legitimoa aitortzen dauen kontzientziak pixkanaka aurrera
egiten dauela ikusi dogulako. Emakume ausarten, proiektu
pertsonal eta kolektiboen liderrak diren emakumeen testi-
gantzak jasotzen doguz orrialde hauetan, egungo proiektuak
eta historikoak. Idealekiko eta norberarekiko leialak diran bi-
zi-proiektuak dira.

Urtero, Urdaibai Magazinek ikuseremua zabaltzen dau, per-
tsonen eta geure gizarteari une bakoitzean axola jakezan gaiak
detektatzeko. Gure irakurleen artean aurton *online* egin dogun
gogobetetze-inkestak atal barri bat sortu da, ARTEAN, sor-
menaren, literaturaren, pinturaren, argazkigintzaren, musika-
ren edota arte eszenikoen mundurako leihoa.

Aurton, Urdaibai Magazine talde jakinguratsu, iragazkor, ze-
harkako eta geratu bakoak barrikuntza gehiago gordetzen
dauz. Urdaibai Magazineran harpidetu eta barrikuntza guztiak
deskubritzera gonbidatzen zaitugu.



ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.L

Carlos Gangoiti, 15, behea
Gernika-Lumo (Bizkaia)
nuevaeuropa@nuevaeuropa.eus
www.nuevaeuropa.eus

HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gugaz harremanetan jarri hemen:

urdaibaimagazine@nuevaeuropa.eus
tel.: 94 625 06 06

www.urdaibaimagazine.eus

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenek
emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

5.11.17,38 eta 39 orrialdeetako argazkiak Freepik-etik hartuak

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso dau.

PUBLIKAZIOA DATA: 2023.03.27



AURKIBIDEA



- 04 ERREPORTAJEA. Hezkidetza, desbardintasunetik abiatuta bardintasunean hezi
- 10 DANONARTEAN.
- 17 KOLABORAZIOA. Gernika-Lumoko ikaslekoa
- 18 VISIT URDAIBAI. Garbilekuak
- 20 ALKARRIZKETA. Maria Oianguren. Gernika gogoratuz
- 26 LEKUKO. Gernika-Lumoko Klaratarrak
- 28 KALERIK KALE. Santa Katalina
- 32 ARTEAN. Amaia Aberasturi, aktorea
- 36 SALTSA PORRU. Lanpernak
- 38 BERDEAN. Marigorringoa.
- 40 BETI JAI. Xixili

HEZKIDETZA

desbardintasunetik abiatuta bardintasunean *hezi*

Errespetua, bardintasuna, aniztasuna... funtsezko balioak dira, eta gizartea indartzen dabe. Balio horreek bizi eta defendatuko dabezen gizarte bat "eraikitzeak" zimenduak ondo finkatzea eta desbardintasunak atzean uztea eskatzen dau. Busturialdean, hezkuntza-komunidadea jakitun da aldaketa-eragile lez daukon balioaz.

Bardintasuna da hezkuntza ez-sexistaren oinarri dan zeharkako ardatza, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen, hauek ahalduntzean eta genero-diskriminazio bako aukera-bardintasunean laguntzen dauena. Hori da hezkidetza.

Busturialdeak be gizarte pluralagoa eta bardintasunezkoagoa eraikitzeke erronka dauko. Horretan ari dira eskualdeko ikastetxeak, etorkizunean geure gizarteak aurrera eramango dabezen pertsonen hezitzaile lez daukeen funtsezko eginkizunaren jakitun. Baina ze puntutan gagoz?

Hezkidetza zeharkako erantzukizuna da. Eragile askok dauke helburu komun hori martxan jartzeko ardura: hezkuntza-komunidadeak (ikastetxeak, irakasleak, gurasoak, ikasleak eta Berritzeguneak) eta Emakundek, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta udalek, besteak beste. Busturialdean alkarregaz lan egiten da Gernika Berritzegunearen bidez, eta hilean behin mintegi bat egiten da. *"Mintegira Durangaldeko, Busturialdeko eta Lea-Artibaiko 60 irakasleek parte hartzen dabe (publikoak eta itunpekoak). Topaketa horreetan edukiak lantzen dira, ikastetxetara eraman ahal izateko. Sailak, gainera, Hezkidetzako proiektuetan parte hartzea-*

sustatzen dau. Hileko mintegi horretan, besteak beste, honako alderdi hauek lantzen dira: pentsamendu kritikoa sexistoaren aurrean, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista, autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa edota emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa", azaltzen dau Idurre Olano Astigarraga Gernika Berritzegunetik.

Gernika-Lumo hausnarketa-prozesu global batean murgilduta dago, bere hezkidetza-plana herriko hezkuntza-komunidade osoagaz zuzeneko lankidetzan garatzeko. Goizeder Moral Ponce Gernika-Lumoko Udaleko bardintasun-teknikaria da: *"Emakume eta gizonen arteko bardintasunerako IV. Plana dogu indarrean eta bertan gizarte eraldaketarako ildo estrategikoen artean hezkidetza diagnostikoa bideratzea agertzen da, gero Hezkidetza plana burutzeko herri mailan. Helburua da Gernika-Lumoko hezkuntza formala osatzen daben ikastetxeetan eta hauen ikas komunitadeetan hezkidetza arloan dagoen behar eta erronka nagusiak identifikatzeko diagnostikoa burutzea, etorkizunean diseinatuko dan hezkidetza planarako lehen eta ezinbesteko pausua".*

Diagnostikoaren garapena ikastetxeei eta haien hezkuntza-komunitadeari egindako alkarrizketa sakonetan oinarritzen da, hezkidetza-mailan gauzatzen diran ekimenei, landu diran edukiei, hezkidetza-planen bat diseinatu eta garatu dan eta ikastetxeko hezkidetza-arloaren egitura-maila aztertzen dan informazioa biltzeko. *"Metodo kualitatiboa eramango dogu aurrera hezkidetza diagnostikoa egiteko. Ikas-komunidadea hartuko dogu diagnostikoan, ikasleak, irakasleak eta gurasoak. Hauek*

oso garrantzitsuak dira. Izan be, ikastetxetan lantzen doguna gero etxera eramaten dogu, baina etxean zer gertatzen da? Asmoa da irakasleekaz hastea, hezkidetzan euren erronkak eta betebeharrak zeintzuk diran ezagutu, ikasleei dagokionez horren identifikazioa egin eta gurasoekaz egingo


Euskadin hezkidetzaren arloan egiten diren ekintzak 2019-2023 Hezkidetzako 2. Planetik datoz.

genduke prozedura bardina. Eta hortik Hezkidetza Plan bat eratu, ez dago epea zehaztuta baina ekainerako aurreikusiten dogu egotea Gernika-Lumoko Hezkidetza plana", azaltzen dau Bardintasun teknikariak.

Euskadin hezkidetzaren arloan egiten diran ekintza guztien arau-esparrua 2019-2023 aldirako Euskal Hezkuntza Sistemarako 2. Hezkidetza Plana da, eta Emakundek (Eusko Jaurlaritzak) bideratzen dau. *"Hor finkatzen dira ildo estrategikoen artean ari garen herriko diagnostikoaren ibilbide-orria", azaldu dabe Gernika-Lumoko Udaleko Bardintasun Sailetik.*

Ikastetxe batzuek diagnostiko propioa aurreratu dabe, esaterako, Barrutialde. Bego Diaz ikastetxe honetako orientatzailea da: *"Genero estereotipoak gudan dagoz. Eskolan egin behar doguna da bide-hezitzailea jorratu. Hausnarketa egin, kontzientzia hartu...genero estereotipoak gaz amaitzeko. Gaur egun, gure gizartean danak gara matxistak, ideologia hezitua daukagu, gure sustraletan dago. Sentsibilidade hori garatu behar dogu. Hori aurrea hartzeko norberak landu behar dau. Horretarako planak dagoz, ikasgai guztietan. Nik uste dot gero eta sentsibilizazio handia daukogula. Kontzientzia bagoaz hartzen, baina klaro dauzela oztopoak, batez be kideen artean. Ze igual nagusiok ahal doguz izkutatu hobeto baina ikasleen artean ez".*

Gernika-Lumoko San Fidel Ikastolan 2022tik daukee hezkidetza-plan propioa. Itxaso Garteizaurrekua ikastetxeko hezkidetza-arduraduna da, eta berak idatzi eban plana: *"Ikusten genduan ondo dagoela M8 edota Azaroak 25 egunetan gauzak egitea, baina bakarrik egun horrekaz ez dau balio. Txertatu behar da egunerokotasunean. Hezkidetza arduraduna ikastolan neu naz ta gero dago BAT Taldea. Bizikidetzako edozein arazo dagoe- >>>*



(*) Berritzegune: Zonaka edota lurraldeka erabiltzen diran tresnak dira hezkuntzaren barrikuntza eta hobekuntzarako, eta unibertsidadez kanpoko irakaskuntza-mailetara zuzendutako Laguntza Zerbitzuak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak sortutakoak.

nean ikastolan jarraipena egiteko taldea da, adi egoteko taldea. Gure hezkidetza-planaren esparruan, adinaren arabera, ikasleekaz hainbat dinamika garatzen doguz, hausnarketa eta pentsamendu kritikoa sustatzeko".

Errealidadeak errazagoa dirudi Busturialdeko eskola txikietan. Gautegiz Arteagako Montorre Eskolan horrela kontatu deuskue: "eskola txikietan errazagoa da lantzea hezkidetza, agian bai. Guk daukagu eginda hezkidetza plana igazitik. Egunero zeozer agertzen bada hortik abiatzen gara. Gure ikasleak Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako 6. mailara doaz. Talde heterogeneoak egiten doguz, adina kontutan hartuta.... Eskola txikia gara eta ez daukagu hainbeste arazorik, patioan bez.. neska-mutilak aritzen dira batera futbolean edo beste jolas batzuetan jolasten. Egia da nagusiekaz gatzagoa dala. Gero dekogu bizikidetza be, hezkidetzagaz lotuta doana. Guxi gara baina kultura barriak agertzean bizikidetza arazoak sortzen dira. Ze beste kultura batzutan ez dabe onartzen emakumearen rola, eta horretan lan egin behar da", azaltzen dau Ana Fuentes-ek, Montorre eskolako hezkidetza arduraduna.

Inspira ikasleen bokazino zientifikoa eta teknologikoa sustatzeko proiektu aitzindaria da.



Gernika-Lumoko ikasleen martxoaren 8ko ekitaldiaren irudia.

IBILIZ EGITEN DA BIDEA...

Hezkidetza-eskola baten helburuetako batzuk dira, besteak beste, emakumeen jakintza eta ekarpen sozial eta historikoa integratzea, orientazio akademiko profesional ez-sexista bermatzea, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea edota tratu ona sustatzea. "Eguneroko bizitzan saiatzen gara hezkidetza egiten beti.

Nik ikasle ohiak badekoitez, gogoratzen dabezenak zelan indartu dogun beti, emakumeen formakuntza bereziki. Lekua, duintasuna hartzeko. Ez gara bardinak, duintasuna gura dogu. Hezkidetza ordu guztietan egin behar da, egoera guztietan, momentu guztietan, edade guztietan..hori

txikitatik arnasatzen da. Eurek jabetzen dira ze ikusten dabez egoera desbardinek.. gainera globalizazioa handitu egin danez asko igertzen da kultura diferenteetatik zelan arnasatzen dan, orduan kontuz! gauza asko dagoz egiteko", azaltzen dau Belen Olarreta Martiartuk, Mertzedeko ikastetxeko monja irakaslea.

Ikastetxeek badakite egin beharreko bidea luzea dala: "Tutoretzako saioetan lan egiten dogu hezkidetzako plangintza hori aurrera eramateko. M8 bezalako egunetan haurtzaindegitik hasi eta DBH 4. mailararte, etapa bakoitzak dauko bere eguneko plana. Plan bererzi bat egiten dogu ta maila bakoitzari egokitzen doguz edukinak. Egun desbardinetan, arazoak gertatzen direnean ikasgelatan saiatzan gara lotzen hezkidetzako plan horrer. Guk daukagu

hezkidetzako arduradun bat eta bera joaten da formakuntzako saioetara eta gero berak guri emoten deusku formakuntza. Nik uste dot asko falta dala egiteko. Basamortuko are zati baten moduan da. Eurek teoria badakixe baina azkenien egunerokotasunean ez da ikusten, praktikan ez da ikusten. Ondino, bide oso luzea geratzen da" kontatzen deusku Maite Etxeandiak, Seber Altube ikastolako irakaslea.

Emakumeek neurri txikiagoan jarraitzen dabe espezialidade zientifiko-teknologikoetan sartzen, eta gizonek, barriz, tradizioz maskulinitzat jotako adarretara jotzen dabe gehienbat. Hortik sortu zan Inspira programa, Euskadin aitzindaria dan proiektua, euskal ikasleen artean bokazino zientifikoa eta teknologikoa sustatzeko, bereziki nesken artean. "Programa honen barruan gagoz, Deustuko Unibertsidadeak sustatutako proiektua, Euskadiko Inno-basqueren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetzagaz, besteak beste. Programa honetan emakume zientifikoak eta teknologikoak borondatez parte hartzen dabe, eta ikastolara etortzen dira geure inguruko estereotipoak, lana edo emakumeak eta zientzia historian zehar lantzen dabezen lan-saioak egitera. Etorten dira emakume zientzialariak eta egiten dabez tailerrak LH6 mailan, neskak ta mutilak banatute. Hori be sartzen da hezkidetza planean", azaltzen dau Itxaso Garteizurrekoak, Gernika-Lumoko San Fidel Ikastolako hezkidetza-arduradunak.

«Bardintasunean» eta «bardintasunerako» lan egiteak emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen dau.

DESERAIKI ERAIKITZEKO

Gaur egun indarkeria ikusten dogu egunerokotasunean, bideojokoetan, marrazki bizidunetan... Askotan, indarra, enpatia eza eta indarkeria gatazkak konpontzeko tresna baliagarri lez erabiltzen dira. Alde horretatik, salbuespenak salbuespen, mutilen eta nesken arteko sozializazio desorekatuak jarraitzen dau, eta beharrezkoa da horreek deseraikitzea. Bar-

dintasunezko maskulinitate barriak erakutsi behar doguz. "Estrategia aldatu behar dogu. Egiten doguzan mezu batzuetan mutilek sentitzen dira errudun. Egia da eskubi-

deak ukatzen badeutsuez errazago ikusten dozula, pribilegioak badozuz ez dozu ikusten hain errez. Eta mutilek asko sufritzen dabe, ze mutileei markatzen deutsoe zelan izan behar diran. Eta hoiek be dira matxismoaren biktimak ta, nik uste dot mimatu behar doguzela gehiago mutilak", azaldu dau Barrutialdeko Bego Diaz-ek.

"Mutilek behar dabe emozinoaren lanketa egin, emozino oso erreprimituta daukeelako. Badirudi mutilak izateagatik "zigortu" >>>



Gernika-Lumoko ikasleen martxoaren 8ko ekitaldiaren irudia.



egiten doguzela euren emozinoen ikustararte horretan. Eta hori be asko landu behar da. Mutilak gehiago zirgortzen dira nesken munduan sartzen diranean neskak mutilen munduan sartzen diranean baino. Homofobia hor dago. Maskulinidade asko egon behar dabe eta desbardinak. Feminidadeak bardin.”, adierazten dabe Gernika-Lumoko Bardintasun Sailatik.

«Bardintasunean» eta «bardintasunerako» lan egiteak emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen dau, eta azken 30 urteetan asko aurreratu dogula dirudien arren, gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa da. Emakundek emakumeen aurkako indarkeriaren eraginari buruz jasotako datuen arabera (EAE, 2021), 2021ean indarkeriaren biktima izan ziran 4.317 emakume zenbatu ziran guztira. “Emakumeen adina kontuan hartuta, esan daiteke biktimen ia erdiak (% 45,1) 31 eta 50 urte bitartekoak direla, eta % 27,4k 18 eta 30 urte bitartekoak. Gainera, biktima diran emakume guztien %12 adinbakoak dira. Emakume gazteenak dira familiaratik kanpo eragindako sexu-indarkeriaren biktima nagusiak”.

Gure ikastetxeetako hezikidetzak emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta jarduera lantzen dauz eta bardintasun arloko hezkuntza afektibo eta sexuala, “jolasen, abestien analisien edo sexu-hezkuntzako klaseen bidez. Azken hau aspalditik garatzen dogu, hasieran bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduta egoan, baina duela 6 urtetik hona, gurasoek eskatuta, Lehen Hezkuntzako 2., 4. eta 6. mailetan be hasi ginan lantzen, eta oso ondo doa. Autoestimua lantzea funtsezkoa da”, azaldu deuskue San Fidel Ikastolan.

Hizkuntzaren erabilera errespetuan eta inklusioan oinarritu behar da.



AIPATZEN EZ DANA EZ DA IKUSTEN Euskal Hezikidetza Planaren funtsezko zutabeetako batzuk hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista sustatzea dira. “Gure berbeta oso garrantzitsua da, ideologiak bat egiten dauelako horregaz. Pentsamendua hizkuntzaren bidez eraikitzen da. Zergaitik esaten dogu “goazen mutilak” neskak eta mutilak badagoze? Egia da euskaraz erraztasun handiagoa dogula hizkera ez-sexista erabiltzeko, adibidez gurasoak berba daukogu aitari eta amari buruz aitzeko., baina askotan hurrek beraien euskara eta gaztelania nahasten dabez eta “los aitas” esaten dabe. Izendatzen ez dana ez da existitzen”, adierazten dabe Gernika-Lumoko Bardintasun Sailagtik.

Gernikako Berritzegunetik diñoskue: “hizkuntzaren erabilera errespetuan eta inklusioan oinarritu behar da. Kritiko izan behar dogu erabiltzen dogun hizkuntzagaz, ia pertsona guztiek baliabide linguistiko sexistak erabiltzen doguzela onartuz. Horreek detektatzeko lehen pausua gure kulturen murgilduta egoteak hizkuntza sexista erabiltzera garamatzala onartzea da. Gure hizkuntzak, generoa definituta ez daukenez, bidea errazten deusku. Baina kontuz ibili behar dogu, hizkuntza sexista maskulinoa edo femeninoa erabiltzeaz haratago doalako”.

Euskal hezikidetza-planaren beste zutabeetako bat ikastetxeko espazioetan eta eskolaz kanpoko jardueretan eta jarduera

osagarrietan lan egitea da. Gune horreek, batez be jolastordukoak, mutilek bete izan dabez historian zehar joko lehiakorretan, eta oso berezita egon ohi dira mutilen taldeetan eta nesken taldeetan. Ikastetxeak esparru hori lantzen ari dira, patioen ikuspegia eta funtzionamendua aldatzeko. “Guk 20 urte baino gehiago daramatzagu jolastokiak dinamizatzen, futbolera edo saskibaloira mugatzen ez diran jokoak egiten, esaterako, sagua eta zapia, tunela, zelai errea... eta txapelketak be egiten doguz. Hezikidetza bizikidetza be bada”, azaldu deuskue Gernika-Lumoko San Fidel Ikastolatik.

Zelan atara gaitezke arrosa eta urdinaren hezkuntzatik? Gernika Berritzegunetik horrela esaten deuskue: “Irtenbidea ez

dago ikasgeletan bakarrik. Eskola aulki bat baino gehiago da. Hori bai, irakasleak prestatzen jarraitu behar dogu, eta baliabideak emon, ikasleekaz erabili ahal izateko. Garrantzitsuena da betaurreko moreak lepoan eramatea, sistema patriarkal batek ezarritako sinismen mugatzaile batzuen pean egiten ari garena hautemateko.” **UM**





ARRATZUKO

UDALA

APARKALEKU BARRIA ERDIGUNEAN

Arratzuko Udalaren helburu estrategikoa izan da herritarren mugikortasuna erraztea, modu irisgarri eta jasangarrian. Udalerrri osoa zeharkatzen dauen bidegorri-sareak erakusten dau ze garrantzitsua dan Udalarentzat auzo guztiak lotzea. Mugikortasun-estrategia horren barruan, ibilgailuak joan-etorrietarako erabiltzearen garrantzia eta beharra be kontuan hartu eta baloratu da. Erdigunean, Loiolako sarreran (Uarkatik) dagoen udal-jabetzako orube batean aparkaleku publikoen kopurua handitzea aurreikusi da. Helburua bizilagunei, eta baita bisitariei be, auzorako sarbidea erraztea da, udal zerbitzu nagusiak batzen dira bertan eta, esaterako Udala, Kultur Etxea, Herriko Taberna, Arrolagune, Arrolako *oppidumaren* interpretazino-zentroa, osasun-zentroa edo frontoi estalia. Proiektua bi fasetan egingo da. Lehenengoak, martxan dagoenak, koteak aparkatzeko ia hogeita hamar aparkaleku-plaza, mobiduteko urritasuna dauken pertsonentzat gordetako plazak, motorrentzako aparkalekua eta natura- eta landa-inguruneagaz harmonizatze berdegunea barne hartzen dauz. Azken honek diseinu originala izango dau, hainbat dekorazino-elementuek az eta erliebedun lora-tegiek az. Proiektuak mugikortasun jasangarria, irisgarria eta ordenatua lortzearen garrantzia azpimarratzen dau, udalerrria dinamizatzen lagunduko dauena eta, aldi berean, estetikoki eta ingurumenari dagokionez inguruneagaz koherentea izango dana.



BUSTURIKO

UDALA

UDAL KIROLDEGI FUNTZIONAL BARRIA ETA ONDO EKIPATUTA

Aingerubidek ondo ekipatutako gimnasio bat dauko lehen solairuan, udal kiroldegia, eta Busturiko Udalak herritarrei zabaldu deute, lotutako zerbitzuak bertan batzeko asmoz. Beheko aretoa kirola egiteko erabiltzen da, pilates, hirugarren adinekoentzako gimnasia, yoga eta zumba klaseek az. Goiko aldean gimnasio ekipau bat jarrita, eraikin horren egokitzapenaosatzen da, estalpeko kirola egin ahal izateko udal kiroldegi lez, herritarrek be aisialdirako denbora gehiago herrian pasa daiezan. Espazioaren hobekuntzen eta berregokitzearen artean, eraikina klimatizau egin da, aeroterminia-sistema barriategaz, emisino barik eta energia-gastu txikiagoagaz. Instalazinoaren diseinua be aldatu da, funtzionaltasuna eta erosotasuna handitzeko. Espazio barria hainbat aparatuz ekipau da, esaterako, korrika egiteko zinta bat, eliptika bat, arraun-banku bat, *indoor* zirkloko bizikleta bat, goialderako eta hanketarako erresistentzia-makinak, multiestazinoak, mankuernak edo posizino anitzeko bankuak. Azken batean, Busturiko bizilagunek entrenamendua baldintza onenetan egin ahal izateko behar dan guztia. Fitness-aparatuak renting-erregimenean egongo dira, eta horrek bermatuko dau hauen mantentzea eta barritzea. Instalazinoetara sartzeko, txartel magnetiko indibidualako sistema bat erabiliko da, ordutegi-askatasuna eta zerbitzua hobetzeko erabilera-datuak emoten dauzena.



FORUKO

UDALA

ELEKTRIZIDADEA KARGATZEKO BI UDALGUNE, TOKIKO MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ALDE

Foruk ibilgailu elektrikoak kargatzeko bi gune barri izango dauz erdigunean. Foruko Udalak, energia barritagarriak, energia-eraginkortasuna eta -trantsizino eta mugikortasun jasangarria bultzatzeko strategiaren barruan, auto elektrikoak kargatzeko instalazino bat jarriko dau Eleizaldeko aparkaleku publikoan. Jasangarritasunaren aldeko eta klima-aldaketaaren aurkako udal apustuan beste pausu bat da, aurretik emondako beste batzuen atzetik datorrena, esaterako, autokontsumorako eguzki-plakak jartzea udaletxean edo energia fotovoltaiakoa instalatzen daben etxebizitzan aldeko tasen hobariak. Herriaren erdigunean dagoen azpiegitura honek bi karga-gune izango dauz eta, beraz, bi ibilgailu elektrikori aldi berean emongo deutse zerbitzua. Karga-sistema hornitzeko energia elektrikoa udaletxean ezarritako plaka fotovoltaiakoen bidez sortutakoa izango da. Karga-aparatua karga erdi-azkarrekoea da, eta 150 kilometroko autonomia eskaintzen dau karga-ordu bakoitzeko. Udaletxeak erreserbaren bidez kudeatuko dau kargetarako sarbidea. Sistemak segurtasun-gailuak izango dauz, besteren batek ibilgailuak deskonektatu ez daian. Auto elektrikoak kargatzeko instalazino martxan jartzeko behar dan inbertsioa 16.862,39 €-koa da, eta horreek finantzatzeko, Udalak hainbat erakunderi eskatu deutse dirulaguntza.



GAUTEGIZ ARTEAGAKO

UDALA

BIZIPUNTOA MUGIKORTASUN JASANGARRIA SUSTATZEKO

Gautegiz Arteagako parkea eta bere ingurua gune estrategikoa da bizilagunentzat, aisialdiaz goatzeko lotura-gunea. Leku zabala da, naturaz inguratua, eta Udalak zerbitzu garrantzitsuak batu dauz bertan. Orain *Bizi punto* bat gehitu jako inguru honi. Ekipamendua libre eta doakoea da, bertan bizikletaren erabiltzaileek bizikleta behar bezala mantentzeko behar dabezen tresnak aurkituko dabez. Bizi punto hau haur-parkearen, tirolinaren eta eskalada-jolasaren ondoan jarriko da. 20 x 20 cm-ko eta 1,40 metroko altuerako kaltzaidu ugergatxezko zutabe bat dauko. Erabiltzaileek konponketa txikiak eta mantentze-lanak egiteko behar dabezen tresna guztiak aurkituko dabez bertan. Bihurkinak, giltz ingelesak, finkoak eta allenak, puzteko eskuzko sistema bat, manometroa eta bizikletak garbitzeko ur-hornidura dosifikadua daukon mangera bat. Gainera, QR kode batek *Bizi Puntuan* egin ahal diran mantentze- eta konponketa lanen-tutorialak kontsultatzeko aukera emoten dau. Honegaz, udalak Bizkaia osoan zehar banatuta dagozen *Bizi puntuen* sarean sartzen dau Gautegiz Arteaga, eta herritarren eta bisitarien eskura jartzen dau mugikortasun jasangarriko eredua sustatzeko baliabide garrantzitsu bat.



GERNIKA-LUMOKO

UDALA

HARESTI HANDI BAT HAZIKO DA GERNIKA-LUMOKO JAIOTZEN ERRITMOAN

Koronabirusaren pandemiaren urteetan jaiotako Gernika-Lumoko haurrek, gurasoekaz batera, Udalak Bilikario mendian, Trama inguruan, proiektatu dauen haresti handiaren lehen arbolak landatu dabez. Ingurumen ekimen polit honen lehen fasean, udalak 4.800 euroko inbertsinoa egin dau hiru ehundik gora haretx ale erosteko, ekimenean parte hartzera animatu diran familiek landatu ahal izango daben zuhaitz espezie autoktono bakarra. Joan dan martxoaren 18an egin zan lehen landaketa, Gernika-Lumoko Udalak orain dala urte batzuk erositako lursailean. Ia bi hektareako azaleran, orain arte pinuak eta eukaliptoak baino ez egozen. Proiektu honen bidez, Gernika-Lumoko eraztun berdeko baso publiko polit hau apurke-apurke haretxez birpopulatu gura dau Udalak. Proiektu honek haretxen landaketa eta haurren jaiotza alkartzen dauz, Gernika-Lumorako "bizitza" sustatzeko ekimena. Koronabirusaren pandemiak iraun duen hiru urte luzeetan 354 haur jaio dira Gernika-Lumon, baina proposamen hau datozen urteetan jaiotzen diran umeei zabalduko jake, lursaila haretxekaz basoa barritu arte. Kimuen hazkunde mailakatuak interes naturalistikoa emongo deutso baso barriari, eta horrek Gernika-Lumoko ibilaldi eta ibilbideen eskaintzari gero eta erakargarritasun handiagoa gehituko deutso.




IBARRANGELUKO

UDALA

IBARRANGELUKO ENERGIA-KOMUNIDADEAREN SORRERA

Ibarrangeluk herri parte-hartzailea dala erakutsi dau, eta jasangarritasunagaz, energia barriztagarriak erabiltzeko trantsizinoagaz eta energia aurrezpenagaz konprometitua dagoela, oso garrantzitsua familientzat. Udalak datozen 20 urteetarako proposamenekaz garatu dauen Tokiko Energia Planari emondako erantzun ona berretsi egiten da herriko Energia Komunitatea bultzatzeko eta bertan parte hartzeko konpromisoan, sozialki eta ingurumenari dagokionez positiboa izango dana. Martxoaren 10ean egindako bileran, proiektua martxan jarri zan. Bertan, eredu desbardinak, emon beharreko pausuak eta alde juridikoei eta finantzarioei buruzko informazioa emon zan. Herritarrek 30 pertsonaz osatutako talde motorra sortu dabe. Hurrengo pausuak talde hori osatzea eta sendotzea eta harremanetarako eredu bat ezartzea izango dira. Ibarrangeluko Energia Komunitatea formalki sortzen hasteko. Herritarren artean osatutako taldeak dira komunitate hauek, kooperatiba edo alkarte lez egituratuak, eta zeregin aktiboa daukee energia barriztagarrien, autokontsumoaren eta energia-eraginkortasunaren sustapenean. Onartu barri dan Autokontsumoari buruzko Legeak energia 2 km-ra arte partekatzea baimentzen dauenez, Ibarrangeluko familiek abantaila hauek izango dabez: instalazinoak gehiago aprobetxatzea, aurrezpen partekatuak egitea eta energia-komunitate bat sortzeagatik dirulaguntza handiagoak eskuratzea. Energia aurrezteko eredu barri bat, da hau, energiaren prezio garestiek kontsumitzaileen menpekotasuna handitzen daben unean.



KORTEZUBIKO

UDALA

ERAKUSLEIHOA MUNDURA ZABALIK

Web orri barri honetan, auzo bakoitzeko paisaian eta auzo guztietan sortzen dan ondare baliotsu eta askotarikoa erakusten dogu, udalerriko turismoaren joan-etorriak orekatzeko. Kortezubiko Udalak laster argitaratuko dau herriaren turismoa sustatzeko webgune barria, *'turismokortezubi.eus'*, turismo jasangarria bultzatzeko udal-ildo estrategikoari jarraituaz diseinatu, eta Kortezubik barneko, estatuko eta nazioarteko turismoan daukon *online* posizionamendua optimizatzeko. Erabiltzaileari esperientzia positiboa eskaintzeko eta Kortezubi, bertako ondare naturala, arkeologikoa, historikoa, etnografikoa eta kulturala bisitatzeko erakargarritasuna eta interesa ezagutarazteko asmoz sortu da ataria. Ikuspegi funtzionaltik, intuitiboa eta zeharkakoa da, eta eskualdeko webgunearen informazio osagarria izango dau. Edukien eta estiloaren planteamendua gaur egungo turistari zuzenduta dago, errespetutsua, jomugaren kalidadeak inspiratuta eta erakarrira, Kortezubi ezagutzeko esperiantziari balio berezia emoten deutsoen turismo aktiboko, kulturalako, naturako, gastronomiako eta Kmo produktuetako plan bereziak egiten dauzena eta esperientzia bereziak bilatzen dauzen turista, hain zuzen be. Familian egiteko turismoa, udalerrriaren ezaugarriengaitik eta zerbitzuen eta azpiegituren kalidadeagatik, web orriko beste puntu nabarmena da. Kortezubiko auzo eta txokoek eskaintzen dabezen xarma eta baliabide turistikoak aurkezpen gutuna dira. Atari turistiko barria udalerriko sare sozialen kontuekaz (Facebook, Instagram) lotuta egongo da, trafikoa sortzeko eta Kortezubi Urdaibain jomuga turistiko gisa kokatzeko.



MENDATAKO

UDALA

ASFALTATZE BARRIA LAPRASTEGIKO SARBIDEA HOBETZEKO

Mendatako Udalak Laprastegiko auzo-bidea egokituko dau, herriarren segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko. Udalaren egokitzeko lanen agendan sartuta dagoen tokiko ekintza-planen barruan bide hau asfaltatzea dago, bidea hobetzeko proiektuaren bigarren fasean. Laprastegi baserrira iristeko bideak jarduketa osoa eskatzen eban. Lehenengo fasean, Zarrabentan (Olabe auzoa), Laprastegi baserriaren inguruan, mendi-hegalaren irristatzeak eragindako arazoak konpondu ziran; izan be, horrek baserrira sartzeko bidea haustea eragin eban. Horretarako, errepidearen zabalera osoan dagoen zoru-lauza (asfaltoa eta hormigoia) eratsi eta azpioinarria saneatu eta egonkortu zan. Auzo-bide bateko 700 metro inguruko gunea da, eta 3,5 metroko zabaleragaz. Garbiketako lanak, erreparau, zuloak bete eta luzetarako areka egiteko zatia amaitu ondoren, orain asfaltatu egingo da, bideari azalera erresistentea, itsasgarria, irmoa eta laua emoteko. Obra osoaren aurrekontua 135.349,79 eurokoa da. Aurrekontu horretan sartzen dira, besteak beste, aurretiko lanak, lur-mugimenduak, bide-jarduerak, drainatzea, hondakinen kudeaketa eta segurtasuna. Aste gutxi barru amaituko dan bigarren fase honetarako, Udalak dirulaguntza bat kudeatu dau Bizkaiko Foru Aldundiagaz.



MURUETAKO UDALA

GIMNASIO BAT, HERRIAN KIROLA SUSTATZEKO

Muruetak gimnasio-zerbitzua izango dau. Udalak hitzarmena sinatu dau Muruetako Dinamitxie Herri Kirol Klubagaz, klubak gimnasio gisa egokitu daian Casa Floreseko beheko solairuko aretoa, eta bere kirol beharretako bat bete daian. Herriko alkar-teei laguntzea eta muruetarren artean euskal kirola, kultura eta tradizioak sustatzea lehentasunezko helburuak dira Muruetako Udalarentzat, eta horregaitik jarri dau Casa Flores eraikina eskura-garri, bertan lehengo udaletxea egoan. Udalaren jabetzako eraiki-na da, eta hitzarmen honen bidez udalak doan lagako dio aretoa eta komuna Muruetako Dinamitxie Herri Kirol Klubari. 40m2 inguruko espazioa da, aparkalekutik sarrera independentea dauko eta komunetarako sarbidea dauko. Espazio horretan kirol-klubak gimnasioko makinak instalatuko dauz klubak erabiltzeko eta horrez gain, udal-gimnasioko funtzioak beteko dauz. Hitzarmenaren bitartez, klubak konpromisoa hartzen dau Muruetako bizilagunei instalazioetara sartzeko eta hauek erabiltzen uzteko. Horretarako, kuota bat ezarriko da eta txartel bidez sartuko da. Hitzarmenak bost urteko iraupena dauko, eta ondoren luzatu ahal izango da, bideragarritasunaren eta funtzionamenduaren arabera.

 **Visit Urdaibai**
© bai Nueva Europa

URTE OSOAN BISITA GIDATUAK VISITAS GUIADAS TODO EL AÑO



AURRETIZKO ERRESERBA 634 243 762
RESERVA PREVIA www.visiturdaibai.com

kulturklik

www.kulturklik.euskadi.eus

Agenda
kultural osoa,
klik batean

Toda la agenda
cultural,
en un *klik*

Tout l'agenda
culturel
juste à un *klik*

All the cultural
agenda
in a single *klik*



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Etorkizuna bardintasunean eraikiz

"Ohituta gaude era honetako manifestoak emakume heldu ta adituak idaztea. Beti gai politiko ta sozialak jorratzen dituzte baina normalean guztiz ahaztuta gelditzen dira gazteon bizipenak, horregatik geure ikuspegitik hitz egingo dizuegu. Hau ez da iraganera begiratu eta negar egiteko egun bat hau iraganera begiratu eta aurrera jarraitzeko eguna da. Indarrak hartu eta besteei kontzientzia pizteko eguna".

"Jotzen gaituztenean maite gaituztelako dela esaten dute, kolpeak maitasun adierazpenak izango balira bezela. Hori esaten digutenei aurre egiteko garaia da."

"Aski da, Nekatuta gaude etxera bakarrik joan ezin izateaz, uneoro norekin gauden esan behar izateaz, jaietan nahi dugun lekuetatik askatasunez ibili behar dogu, ez gaude ileroarekin, zuekaz naskatuta baizik".

"Geuk be badakigu eta gauza gara, futbolera, saskira eta beste hainbat jokoe-tan taiuz aritzeko. Jolastorduetan be espazioak eta jokuak partekatzeke eskubidea aldarrikatzen dogu."

"Aurton ere Martxoak 8 Emakumearen Nazioarteko egunean aldarrikatu nahi dogu geure herria, Gernika. Egun honetan desbardintasunak zalatzeaz gain historiaren zehar emakumeek egin dituzten ekarpenak eta mundo osoko emakumeen erreferenteak aipatu eta gogoratu nahi ditugu".

"Ez gara transparenteak eta geure lekua nahi dugu estudioetan, kiroletan, jaietan...eta gure bizitzako leku guztietan. Ez dezagun ahaztu, bardintasun eza, ez da berez sortzen, egin egiten dogu, aldatu dezagun. Egin dezagun bardintasuna danon artean"



**GERNIKA-LUMOKO IKASLEGOAREN
ALDARRIKAPEN DISKURTSOA,
2023ko M8a.**



Landa eta baserrietako paisaia bukolikoetan galduta, uraren soinua eta jarioa baino ez daukie lagun. Halanda be, hamarkadatan zehar benetako "zentro" sozialak izan ziran landa-inguruneko emakumeentzat. Bizimodu ia ahaztua, orain aldarrikatzen doguna.

Emakume ahotsak, berbaldiak, barreak, kantak, konfidentzia intimoak... Busturialdea-Urdaibaiko landa-geografian sakabanatuta topetan doguzan garbilekuen ondolik pasatzean erromantizismo kutsuagaz irudikatzen doguzan eszenak dira. Etxeetan ur korronterik ez egoan garai baten, garbilekuak sozializazio-zentro bihurtu ziran, eta, leku horreetan, behar egiten eben bitartean, emakumeak lagunaren artean "askatu" eitekezan. Garbilekuak ezagutzak eta esperientziak partekatzeko gune be bihurtu ziran, erropa eskuz, neguan

ur izoztuagaz eta batzuetan belarrik garbitzen eben bitartean. Ganera, garbilekuak erreken eta errekaetako alboan eregitzen ziran, eta, halanda ze, saski kargauak erroteko, ahalegin fisikoa handia egin behar zan. Harritzko oinarritzko azpiegitura kolektiboak ziran, batzuetan ia luraren arrasean eregiak. Beste garbileku batzuk altuera handiagoan eregi ziran, eta, ondorioz, behar hori zutunik egin eitekean, "erosotasun" handiagoagaz eta bizkarrek hainbeste sufridu barik. Beste sofistikatuago batzuk estalita egozan.

Garbilekuak,

ONDAREA ETA MEMORIA



Ikazurietako garbilekua, Nabarniz

geinkez. Busturin, Erriene, Axpe eta Madariaga torrearen inguruko garbilekuetan. Muxikan Ibarruriko auzoan eta Ikazurietan Nabarnizen. Lumo auzoan be garbileku txiki estali bat dago, iturri batez eta aska batez kanpoko kaldean, eta Muruetan, Landako garbilekua dago. Horreek guztiak herri-ondarea eta emakumeen memoria kolektibo dira, erropa garbitzea emakumeen beharra baino ez zan-eta, sozialki mugatuta egozan lekuak. Bolatokia, taberna edo plaza gizonetako lekuak ziran.

Gure garbilekuetako batzuek nekez jasan dabe denporea. Busturialdea-Urdaibaiko herrietan egiten doguzan ibilaldi eta txangoetan horreek ezagutzea esperientzia polita da, eta euren historia ezagutzen badogu, balioan jarriko doguz. Gure toki-ondarea osotzen daben aztarnak eta kultur turismorako baliabide interesgarriak dira.

UM

emakumeen ahotsagaz



Iturriñako garbilekua, Ea

EMAKUMEENTZAKO GUNE ESKLUSIBOA

Gure eskualdean, balio etnografiko handiko bizitza eta kultura herrikoia lekuak diran azpiegitura horreetako batzuk topau geinkez. Iturriñako garbilekua, Angelutxuko (Ea) landa-guneko paisaia idilikoa, ondoen konserbaturik dagoen bat da; izan be, emakumeen bizitoki, behar leku eta hartu-emonetarako leku ziran gune honeen gizarte-testuinguruari balioa emateko berreskuratu zan. Garbilekuaren alboan, dibulgazio-panel batek emakumeen ohiko eszenak ilustratzen dauz, familiako erroparen bogada egiten. Erropa zikinez betetako saskiak baserrietik garbilekuraino eroan, jabolatu, igurtzi, irakutzi, eta, are astunago, erropa bustiagaz barriro baserrira bueltatu behar zan. Iragan ez hain urruneko eszena honek Kortezubiko garbilekuetan, Barrutian eta Barrutibason, be imajinatu



Ibarruriko garbilekua, Muxika
URDAIBAI MAGAZINE 19

Maria Oianguren

Une honetan, gerrea izen-buru guztietan agertzen danean, bakeari buruz berba egin dogu Maria Oiangurene-gaz, Bakearen aldeko Ikerketa Zentroko zuzendari eta *Gernika Gogoratuz* Fundazinoako patronoagaz

Bakea ikertzea gerrearen saihestuezintasuna zalantzan jartea da



MARIA OIANGUREN

Bakearen aldeko Ikerketa Zentroko zuzendaria eta Gernika Gogoratuz Fundazioko patronoa

Zeure lan-ibilbidean, giza eskubideen eta bakearen arloan bete-betean behar egin dozunez, zelan ikusten dozu errealidadea mundu-mailan?

Erronka handiak daukaguz aurretik, eta dimensino ugariak krisiak bizi doguz gaur egun: politikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala. Hori dala eta, gobernantza demokratikoa, personen zein herrialdeen segurtasuna, bakea eta giza eskubideak dagoz mehatxupean, baita ekosistemea bera be, gaur egun planetako larrialdi nagusitzat jotzen dala kontuan hartuta. Maila ugariak krisiunea danez, maila guztietan emon behar dira erantzunak, eta lurralde bakoitzeko tokiko errealidadeak euki behar dabez abiapuntu, baina ikuspegi globalak albo batera itxi barik.

“Gernika Gogoratuz” Fundazinoak “oroitzapena” edo “oroimena” berbea daroa bere izenean. Oroimenak zenbateraino lortzen dau gatazkak konpontzea?

Oroimena funtsezkoa da bakearen eraikitearen arloan. Oroimena eta kontzientzia eskutik joan behar dira. Oroimena iragenera begira dago, egitateak eta gertaera traumatikoak gogoratzen dauz. Etorkizunerantz egindako begiradeak kontzientzia, kontzientzia globala, kritikoa euki behar dau bidelagun. Oroimena hain garrantzizkoa danez, eskubidetza hartzen da gaur egun, eta, egitarako, ordainerako eta biktimentzako justiziarako eskubidea ezeze, gizarte osoak zer jazo zan jakiteko daukan eskubidea be bada.

“Gernika Gogoratuz” Fundazinoaren ia-ia 36 urteen ostean, zer balantze egiten dozu?

Ia-ia hasieratik nago. *Gernika Gogoratuz* bonbardaketearen 50. urteurrenaren esparruan sortu zan, eta bakea sustatzea eukan helburu. Leku sinboliko batean sortu zan egitate zehatz baten harira, eta, horrezaz ganera, nazinoarteko dimensinoa be hartu eban Picassok “Guernica” margotu ebalako, gerrea salatzen dauan XX. mendeko artelana, alegia. 1987an, Eusko Legebiltzarrak Gernika-Lumon bakearen aldeko ikaskuntza-zentroa sortzea proponidu eban, oroimen historikoaren inguruan lan egiteko eta bakeari buruzko

Bakeak erabatekotzat jotzen diran eredu horreek jarten dauz zalantzan.

ikaskuntzetan laguntzeko. Izaera akademikoa emon jakon. Garrantzitsua zan osogai akademikoa eukitea, gerrearen nahiz gatazken errazoiei buruz pentsetan eta hausnartzen laguntzeko eta diziplina ugariak ikerketea be izateko: historia, etikea, gizarte-zientziak... Urte harretan bertan, *Gernika Gogoratuz* Bakerako Ikerketa

Zentroa sortu zan. Urte batzuk geroago, *Gernika Gogoratuz* Fundazinoa eratu zan.

Zer zeregin bete eban Petra Karin Kelly eurodiputadu alemaniarrek?

Petra Karin Kellyk, eurodiputadu alemaniar, bakezale eta ekologistek, Gernika-Lumo bisitau eban 1987an. Bere bisitaldian, Gernika-Lumon bakerako eta

indarkeriarik ezerako ikaskuntzen zentroa sortzeko deia egin eban, eta Gernika-Lumon jazo zanagaitik Alemaniak adiskidetzeko egindako kinutzat hartu genduan dei hori.

Zein izan zan zuon lehenengo ikerketea?

Lehenengoa *Gernikako bonbardaketearen oroimen kolektiboa* izan zan. Bonbardaketako bizirauleak ziran 80 laguni, gizon zein andrari, egin jaken alkarrizketea. Maria Jesús Caba Mesak, Deustuko Unibersidadeko katedradunak, zuzendu eban. Hasiera-hasieratik, oroimenaren osogaia bidelagun euki dogu geure zereginean.

Zure eretxiz, zein dira Gernika Gogoratuz Fundazinoaren ibilbideko mugarri bereziak?

Petra Karin Kellyren bisitaldiaren ostean, 60. urteurrenean, Román Herzog presidente alemaniarrek olesa egin eutsen bonbardaketako bizirauleei eta lekukoei, hegazkin alemaniarren partaidetzea autortu eban, alkartasuna adierazo eutsen biktimei eta eskua luzatu eban adiskidetzeko kinu moduan. Kinu gehiago be egon dira; berbarako, 2017an, Alemaniako Kondor leginoko soldaduen oinordeko bik Gernika-Lumo bisitau eban, leginoko goi-gradudunen senideen adierazpe-nean parte hartu eban eta adiskidetzeko eta alkarregaz bizitzeko prozesuagaz hartu eban konpromisoa. Belaunaldi arteko osogaia berreskuratu zan, eta belaunaldi barriek bakearen zein giza eskubideen aldeko konpromisoa hartu eban. Tokian-tokian eta nazinoartean eragin handia euki daben mugarriak dira.

Zelako eragina euki eban Unescok Gernika-Lumo “Bakearen uri” autortu izanak?

Oso eragin handia euki eban. 2004an, Unescok “Bakearen Uriaren Saria” emon eutsan Gernika-Lumori. Hiru mugarrik hautagaitza hori oinarritu edo defendidu eban. Lehenengoa *Gernika Gogoratuz* ikerketa-zentroa sortzea izan zan; bigarrena, Gernikako Bakearen Museoa sortzea; eta, hirugarrena, Gernika-Lumo zein Alemania adiskidetzeko prozesu osoa gartzea.

>>>

Zelan ikertzen da bakearen alde?

Guretzat, bakea ikertzea gerrearen eta indarkerien saihestuezintasuna zalantzan jartea da, besteak beste, bardintasunaren, justiziaren zein giza eskubideen defentsareen alde egitea eta alkarbizitza baketsurako eremuak eskaintzea, gatazkak era bake-tsuan kudeatu daitezan.

Zelan “ekarri lurrera” bakearen kulturea?

Lurrera ekartea eskoletara bakearen aldeko hezkuntza-programak eroatea da, beste instituzino batzuekaz lan egitea; Gernikako Bakearen Museoagaz, berbarako. Orain dala urte batzuk, une zehatz batean, emoten eban gure lana, akademikoa, personetatik asau geratzen zala. Orduan, beste instituzino batzuekaz, proiektu barriak egituratu genduzan Gernika-Lumon eta Urdaibain, era bateko eta besteko sektoreetako jenteagaz gizartearen, ekonomia- ren zein ingurumenaren arloan geunkazan arazoen diagnostiko bateratuak egiten ahalegintzeko. Urtenbideak eta aukerako proposamenak bilatzeko orduan berton eragina daukien arazoak zein diran zehaztea modu bakarra da, bizileku daukagun eredu hegemonikoa ezarri daitekean bakarra dala kolokan jarteko. Bakeari buruz berba egiten dodanean, gustuko daukat gogoratzea bakeak erabatekotzat jotzen diran eredu horreek jarten dauzala zalantzan eta arazoak jorratzeko orduan partekatzea eta aztertzea merezidu daben beste modu batzuk dagozala.

Zelan gauzatu zan proiektu hau?

“Gatazkan dagozan lurraldeak” proiektuari ekin geuntsan. Argitalpen batzuk egin ziran, eta Oreka bizian dokumentala prestau genduan. Bertan, hiru ekimen nabarmen zehazten ziran. Batetik, gurasoen talde bat kezkatuta egoan seme-alabek eskolako jantokietan jasoten eben elikadureagaitik. Ekimen interesgarria izan zan, gurasoak, irakasleak eta ikasleak batu ebazalako, tokiko eta hurreko produktuen bidez elikadurearen errealidade hoberantz aldatzeko. Beste ekimen bat Kolore guztietako basoak izan zan, eta lehen eskualdean egoan baso-dibersidadea eta dibersidade horren berreskurapenaren garrantzia eukazan helburu. Hirugarren ekimenak Gernika-Lumoko eta Bermeoko gazteen mobimentuak eukazan aztergai, autoku-

deaketa eta inplikazino handiagoak eskatzen ebezalako kulturako ekimenak sustatzeko orduan. Bakeari buruz berba egiten dogunean, bizileku daukagun ingurunea zelan habitetan dogun be badaukagu berbabide.

Gatazketan erabagi politikoak hartzen dabezan agintari gehienak gizonak dira. Zein da andren zeregina gatazkak konpontzeko orduan?

Feminismotik, arlo personala politikoa dala esaten da. Bakearen eraketearen arloan, andrek lotunea euki dabe oinarritzko lanagaz, eta, bertan, nagusi bagara be, nekez parte hartzen dogu erabagietan. Mugarri bat jartearren, 1915ean, Bakearen eta *Askatasunaren aldeko Andren Nazi-noarteko Alkartea* sortu zan, eta, Lehen Mundu Gerran bertan, bakearen defentsaren alde eta gerrearen aurka lan egin eban. Andren zeregina ostenduta egon da, eta agirian jarteko unea ailegau da,

Giza eskubideen defentsan emondako aurrerapausuak hauskorrek dira.



ICIP Bake Eraikuntza Saria Kataluniako Parlamentua 2022 Bartzelona



baita baztertutako giza taldeak, gizartetik baztertutako ahotsak, arrazializautako giza taldeak, LGBTBI... agirian jartekoa be. Dibersidadeak mundu-ikuskerea zabaldu eta aberasten dau, eta mundurantz daukaguzan begiradak osotu eta kolokan jarten dauz.

Zer autortza daukaz *Gernika Gogoratuz* Fundazinoak?

Zentroak hainbat autortza jaso dauz, eta azkena Elcheko Udalarena izan da, Bakearen Kulturearen alde egindako lanagaitik. Irailean, Bakearen aldeko Kataluniako Nazinoarteko Institutuaren saria jaso genduan, bere 2022ko Bake Eraketea sarietan euskal elkarte-sare osoak honako honexetarako egindako lana autortu ebalako: bakerantz aurrera egitea,

indarkeria amaitzea eta alkarbitzarako nahiz adiskidantzarako guneak bultzatzea. Oso mugarri garrantzitsua da, gizarte zibilak bakearen eraketearen arloan garatutako zeregina aurtotzen dalako. Garrantzitsua da, lan

kolektiboa dalako. Era berean, Kolonbiak *Urrezko Koreguajea* emon deusku, Ca-

quetako herriaren bizi-kalidadearen hobekuntzearen eta bakearen alde egin dogun lanagaitik.

Autortzea sentiduten doze tokian-tokian?

Eskualdean, azken 10 urteotan, autortza hori sentiduten dogu, bai. Nahi-ta jentea gure lan-lerroren bategaz neurri handiagoan edo txikiagoan bat etorri, autortu egiten da bakearen kulturearen, oroimenaren eta giza eskubideen alde egiten dogun lana. Horrezaz ganera, gure erakundeak behar besteko gaitasuna dauka, era bateko eta besteko eragileen arteko alkarritzeta sozialaren sustapenerako guneak edegiteko eta alkarri era enpatikoan entzuteko guneak edegiteko. Hori maila horizontalean behar egitea da, eta, bertan, partaidetzea dago zabalik, hain ezagunak ez diran beste errealidade batzuk ezagutzeko.

Zuon lanak zer neurritan lagundu dau gernikarren oroimen historikoa berreskuratzen? Gazteena, batez be?

Oroimenaren eraketa sozialerako prozesuetan inplikau garanean, prozesu horreetan era guztietako indarkerien eragina aztertzea be proponiduten genduala kontuan hartuta, gazte-talde batzuk, gitxi izan arren, etorri egiten ziran, eta jakingurea eukien. Bonbardaketearen oroimenak gazte eta helduoi emon behar deusku jazo zanari buruz hausnartzeko aukerea, baina Gernika-Lumon jazo zana landu ezeze, beste *gernika* batzuetan jazo dana eta ora-indokarren zergaitik jazoten dan be jorratu beharra dago.

Zenbat lagunek behar egiten doze *Gernika Gogoratuz* Fundazinoan? Zelan ikusten dozu belaunaldi-txandaketea?

4 laguneko taldea daukagu modu iraunkorrean. Dana dala, praktiketan dagozan boluntarioen sare handia be badaukagu, baita kanpoko alkarlanan sarea be; unibersidadeko beharginak, berbarako. Taldean, bertoko eta beste leku batzuetako, Alemaniako eta Kolonbiako, esaterako, gizon bi eta andra bi daukaguz. Gu geu eta *Gernikatik Mundura* GKE egoitza berean gagoz, eta ekarpen handia egiten deuskun aliantza estrategikoa daukagu eurakaz. *Gernikatik Mundura* GKEn, andra gazte bi dagoz. Adi-adi egon ginan, jente gaztea sartu eitean, belaunaldi-txandake >>>



Maria Oianguren eta J. Galtung bake eta kultura jardunaldiak, 2003

ta hori behar besteko denporaz preste-tako, erakundearen historikoa igorteko eta bakearen eraketaren arloan zelan lan egiten dan irakasteko. Jakin egin be-har dabe bakearen agenda erronka eta larrialdi existentzialak kontuan hartzen dauzan agenda dana.

Urtebete Ukrainako gerrea hasi zanetik. Zer irakurketa egiten dozu?

Konturatu egiten gara giza eskubideetan erdietsi doguzan lorpenek atzera egin daikiela nabarmen, giza eskubideen defentsan emondako aurrerapausuak hauskorrak dirala. Oraindokarren, *"bakea gura badozu, gerrarako prestau"* adagioa da nagusi, *"bakea gura badozu, bake-rako prestau"* izan beharrean. Historian, argi eta garbi ikusi da gerreak gatazkak konpontzen ez dauzana. Ganera, mehatxu nuklearraren aurrean, erabagien eta erantzunbeharraren mailela askoz be kritikoagoa, zabalagoa eta zehatzagoa da beste testuinguru historiko batzuetako gerretakoa baino. Armategi nuklearrak pentsarazo egin behar deusku gu geu ezeze, hurrengo belaunaldiak be bada-gozala hor, planetako bizitza jagotea be badala helburua.

Zein dira Gernika Gogoratuz Fundazi-noaren etorkizuneko planak?

2021-2022an, 5 urterako Kudeaketa

Plan Estrategikoa egin genduan. Orain-dokarren, hortxe dago oroimenaren lerroa, alkarrizketarako eta bakearen sustapene-rako guneak edegiteko. Era berean, jarrai-pena be emongo deusagu Gatazkan da-goan lurraldeak programeari. Izan be, Bizitzarako lurraldeak be esaten deusagu.

Gogoratu eta defendidu be-harreko metaketa historikoa daukagu. Sistema demokrati-koak indartu, giza eskubideei buruzko adierazpen unibersa-la gogoratu eta burruka femi-nistek, ekologistek eta bake-

zaleek lortutako mugarriak oroitu behar dira. Alkarren artean daukagun mendeta-sunaren jakitun izan behar gara, gizartean bizi garalako, eutsi egiten gaituan siste-ma ekologikoan. Mozkinei ezeze, onura sozialei be begiratu behar deusegu, boz-gorailu handiagoa behar daben aukera jasangarriak proponidu behar dira. Danon zeregina da, nahi-ta erantzunbehar-mai-lea desbardina izan. Bakeari buruz berba egiten dogunean, bizitza eta munduan egoteko modua daukaguz berbabide, eta modu hori bidezkoagoa, baketsuagoa eta jasangarriagoa izan behar da. **UM**

Bakeari buruz berba egiten dogunean, bizitza eta munduan egoteko modua daukaguz berbabide.



GGG Gernika Saria, 2012

JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK

www.jjggbizkaia.eus

GERNIKA

BIZKAIKO PARLAMENTUA



GEREDIAGA

ZIN EGITEKO ERMITA



ABELLANEDA

ENKARTERRIETAKO MUSEOA



BILBAO

EGOITZA ADMINISTRATIBOA



Eguneroko keinu txikiekin, energia aurreztu dezakegu



ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA ENTE VASCO DE LA ENERGIA



www.eve.eus

KLARATARRAK

SEI MENDEKO

historiaren amaiera

Busturialdean martxan egoan klausurako azken komentuak, Gernika-Lumoko Santa Klara komentuak, ateak zarratuko dauz aurten. Holan, agur esango deutsegu fedearen gordeleku horri eta sei mendeko historiari.



Klaratarren komentua, Gernika-Lumo

Gernika-Lumoko klaratarren historiak Goi Erdi Arora garoaz. 1422an, dohatsuen talde batek abituak jantzi, eta San Frantziskoren Hirugarren Ordenearen Arauari men egin eutsan. Erretiroko eta birtuteko bizitzarako batu ziran jainkoza-le hareetako bi Frai Martin de Arteagaren ahiztak ziran; hain zuzen be, Frai Martinek fraide obserbanteen (frantziskotarren) lehenengo komentuaen sorrerea zuzendu eban Izaro ugartean. Serorategi haren ondorioz, Gernika-Lumoko Santa Klara komentua sortu zan 1619an.

Santa Klara komentua zin egiteko Anti-guako Andra Mariaren baseleizatik oso hur egoan, eta baseleiza hori, hain zuzen be, geroago foru-urari izena emon eu-

tsan *Gernikazarra* izeneko lekuan egoan kokatuta. Gaur egun Bizkaiko Batzarretxeko gunek osogai daukan jatorrizko baseleiza hori 1410ean eregi zan Bizkaiko lehenengo korrejidorearen kontura, eta, Bizkaiko Foru Aldundiak Gernika-Lumori buruz argitara emondako Azterketa Historiko Artistikoan adierazoten dan lez,

“ospitalea sortu eban baseleizatik hur, eta, patronatuari eutsi arren, Jaurerriak 1638an laga eban, Santa Klara mojen bikarioaren bizitoki eta ostatu moduan erabilteko”.

Mojen zahardadea eta bokazinoen faltea ei dira komentua zarratzeko errazoiak.

Komentuaren kokapena pribilegio historikoa izan zan, Gernikako uriaren hesitik kanpo, Lumoko jurisdikzinoko lurretan egoan-eta. Distantzia *“hamazazpi kanakoa da, eta, sortaldean, Gernikako Arbola ospetsu baizen entzutetsua dago kokatuta. Izan be, zugatz horren pean egiten ziran Bizkaiko Jaurerriko Batzar Nagusiak”*. Euskal podere politikotik eta askatasunetatik hur egoan kokaleku esanguratsu horren ondorioz, hainbat gorabehera politikotako lekukoa eta protagonistea izan zan; armada batzuen erasoaldia eta okupazinoa, barbarako, eta, euren artean gudaroste frantsesak be baegozan.

Erlijino katolikoaren atzerakadea kongregazio erlijioso honen kalterako be izan da. 2002an, Bermeoko Santa Klara komentua zarratu zan, eta, udea baino lehen, gaur egun Gernika-Lumoko komentuan bizi diran klausurako 9 mojek, gehienak edade handikoak eta osasun makalekoak, behin betiko amaierera emongo deutsie Gernika-Lumon eukien 600 urteko historiari. Herriko erdialdean ondo kokatuta egoan eremu erlijiosoa itxiko dabe atzean. Bertara eratxikitako eleizea gustu neoklasiko italiarrekoa da, habearte bakarra zein alboko kapera zabala daukaz, sarbidea arkupean dago kokatuta, eta Ereñoko harri gorritz egindako horma-oina dauka kanpoko fatxadan. Eremu horretan bertan, ortua eta hilerria be badagoz.

Mojen zahardadea eta bokazinoen faltea ei dira komentua zarratzeko errazoiak. Bilboko eleizbarrutiak azaldu dauanez, Bizkaian, moja klaratarren erkidego handiena Durangon dago, 15 lekaima dagoz-eta bertan. Gernikan, barriz, 9 moja bizi dira erkidegoan, eta, *“kontenplazinozko bizitzako monastegi batzuetan beste herrialde batzuetako mojak onartu badabez be, Durangon eta Gernikan ez dabe etorkizunerako aukera horren alde egin”*.

ARRAUTZAK SANTA KLARARA

Busturialdean eta munduko beste leku batzuetan, klaratarrek edo Santa Klarak euren erlijinotasunetik eta kontenplazinozko bizitzatik harago doan ospea daukie. Santa Klara, Klara Asiskoa, andrentzako bizitza erlijiosorako araua idatzi eban lehenengo andrea eta bakarra izan zan. Oso santu modernoa ei da, baita eguraldi onaren jagolea be, herri-tradizinoaren arabera. Hori dala-ta, ohitura errotua da Santa Klarari dozena bat arrautza eskaintzea, ezkontzearen, bateoaren, jaunartzearen... egunean eguraldi ona egingo dauala ziurtatzeko. Ohitura hori, ganera, euren artisau-gozogintza preziaduaren jatorria ei da. *“Jaunartzeen sasoian, ezin kontau ahala arrautza jasoten ebezan, jaunartzea egiten eben 20 neska-mutil baegozan, familia guztiek eroaten eutseezalako arrautzak”*, gogoan daukie Bermeon. **UM**



Klaratarren komentua Gernika-Lumoko Juntetxetik

SANTA KATALINA

aldauritik
gune historikora



Mundakako plano zaharra (1880)

Mundakako kaleketan ibiltzeak iraganari begirada ekartzen dau gogora. Baina denboran atzera egin eta kaosetik ihes egiteko txokorik baldin badago, hori Santa Katalina da. Emakume izenagaz idatzitako inguru-nea, ermita bat baino askoz gehiago dana.

Mundakako Santa Katalina izenak, herriaren jatorriagaz bat egiten dauen historia aberatsaz gain, ermita bat, auzo bat, moila bat eta plaza-txo bat aipatzen deusku. Logikoa danez, auzoa baino lehen ermita egoan Santa Katalina izenagaz, eta gero auzoak hartu eban izena. Arana errekek bitan banatzen dau herria, eta Isla Kale da beste aldean geratzen dan zatiaren izena. Hor dagoz auzoa, plazatxoa eta Santa Katalina base-liza, *“Aranatik portu horren artzan husten dan errekastoa herriko nukleoaren eta inguru honen arteko muga naturala zan. Aldauri urbanizatuak, bere euskarazko izena iradokitzen dau, Isla Kale. Ahozko tradizioaren arabera, Isla Kaleko jendea zerbait desbardina zan, bestelakoa, eta ez zan erabat integratzen. Bertso zahar batzuek horrela diñoe “urak ebagiten dabe, Islako erreinua”, eziñ enterñidu leike, ango “naziñua”, kontatzen deusku Kepa Ormaetxea mundakarrak, historiazaleak. Honek aipatzen dauenez “XIX. mendearen erdialdean, Isla Kale izeneko auzo horrek izango eban kale-itxurak baselizarako eta aldameneko ortuetarako igarobidea ahalbidetzen eban, eta eraikinen arteko plazatxo moduko espazio txiki bat eukan. Hauetako eraikinen batek plazatxoa zabaltzea oztotzen eban. Hau zala eta, 1853an, Udalak Lucas Gallo de Oñate Mungiaiko bizilagunari etxe bat eta haren lursaila erosi eutsen. Eraikin horrek hamaika estatutako azalera hartzen eban eta Santa Katalina plazatxoaren erdian kokatua egoan. Eraikina bota eta plazatxoa ta moilara doan bidea zabaldu eben. Geroago, 1872an, Santa Katalina plazatxoa enkatxatzeko beharra agertu zan”.*

Garai batean plazatxo hau eta ermita enblematikoa erromeria eta festetarako guneak ziran.

jasota udal-artxiboetan *“1881ean, era berean, aho batez erabaki zan Juan Bta zinegotziari jaien ardurea emotea. Bestelako gastu egin barik, egun hori ospatzeko antxinako ohitura gal ez zedin, zekor bat ekarri edo lortu, plazatxoan sokagaz korritzeko, ohiturari jarraituaz”.*

Datu hori bat dator 1872an baseliza

berreraikitzeke beharizanagaz; izan be, Kepa Ormaetxeak dinoenez *“ermita guardabajon jausi zan, hau da, teilatua eta guzti”.* Berreraikitzen ari ziran denboran, ospakizunak eta udal-entseina plazatxora begira egoan etxebizitza bateko balkoi batean altxatzeko ohitura mantendu ziran.

Gaur egun ermita dagoen inguruari buruz aurkitutako erreferentzia historikorik zaharrena 1506koa da, eta udal dokumentu historiko batean agertzen da: *“Portuondotik ateratzen dan itsasadararren eta ubidearen gainean dagoen artilleria-dorrea... itsaso gazia iristen dan gunetik... barraren sarreran”.* Kepa Ormaetxeak jasotzen

dauen bezala, dokumentu horrek ez dau aipatzen baselizarik egonik, eta bertan defentsarako gotorleku bat (XVIII. m) eta atari zabalatik babestutako gune bat be egon ziran, lazareto lez erabili zana izurri-teengandik babesteko.

SANTA KATALINAK GIDATZEN GAITU

Baina nondik datorkio Mundakari Santa Katalinarekiko debozinoa? Eta zergaitik dagoz geure kostaldean Santa honi ohore egiten deutoen erreferentzia eta erai-kuntza ugari?

Alexandriako Katalina IV. mendeko kristau martiria izan zan. Kristoren birjinarik santu eta ospetsuentzat hartua, dontzeila eta ikasle emakumeen zaindari bihurtu zan, eta bere torturarako erabilitako gurpila bere ikurra zanez, gurtzainak eta mekanikariak bere babespean jarri ziran. Kostaldeko herriekiko harremana bere jatorrian dago, Alexandria, bertan egon baitzen antxinako munduko 7 mirarietako bat bezala hartzen dan itsasargi ederra, marinelak gidatu eta babestera bideratua egoana. *“Moilari, auzoari eta plazatxoari izena emon eutson Santa Katalina base-”*

>>>



Santa Katalina plazatxoa, Mundaka



Santa Katalina basiliza, Mundaka

liza dagoen tokian, itsasargi baten antzera itsasontziak ohartarazten ebezen suak pizten ziran". Itsas seinalak emoten ebezenak ziran, eta bertatik txalupei portura itzultzeko abisua emoten jakezan *"banderen altxatze eta jaitsiera seinaleen bidez eta ke seinaleen (ke-lainoak), suak piztuz"*. Halan agertzen da 1806ko udal-ordenantzeta.

Mundakan, Santa Katalinarekiko debozioa oso handia zan eta horren ondorioz Santa Katalinako Marinel Arrantzaleen Kofradia be egon zan santa horren babespean. Antza danez, *"San Pedro Kofradiako marinelen artean arrantzari eta salmentari buruzko irizpideak desbardinak ziran"*, eta, horren ondorioz, armadore eta tostarteko

askok marinel-korporazino barri bat sortu eben, lehendik egoanatik independentea. Santa Katalina kofradia 1934an gaur egun oraindik mantentzen dan San Pedro Kofradian integratu zan. Mundakako garaiko ontzi askok Santaren izena eramateko ohitura betetzen eben: *"Katalin"*, *"Kataliñena"* edo *"Santa Katalina"* lebatzontzia, besteak beste.

"Santa Katalina noiz? Garia eraitseko otz, besegueta-rako goiz" "ziñoen mundakar esaera zahar batek, baina gero besiguak hartu eban

protagonismoa: *"Besiguaren kostera erabakigarritzat jotzen zan, izan be, kofradiak bere ordenantzeta denboraldi horretarako xedapenak ezarri ebezan itsasoko segurtasunagaz, arrantza-aparailuen erabileragaz eta lonjan saltzeagaz lotuta. Santa Katalina egunean Mundakan ohitura da besigua jatea, ez hemen bakarrik beste leku batzuetan be, Castron adibidez. Ez da ohitura zaharra, lehen besigua egoanen gosea kentzeko jaten zan eta", esaten dau Kepak.* **UM**

Santa Katalina noiz? Garia eraitseko otz, besegueta-rako goiz.



Ez da nahikoa itsaso eskuzabal bat edukitzea, gure abereak gurtzea, ezta lur emankor bat izatea ere. Zerbait gehiago behar da. Horregatik, Euskadin kalitate goreneko 18 produktuek jatorri, zapore eta benekotasun zigilua dute.

No basta con un mar generoso, con rendir culto a nuestro ganado ni con tener un clima fértil para el cultivo. Hace falta algo más. Por eso, **en Euskadi los 18 productos de calidad superior tienen un sello de origen, sabor y autenticidad.**



A B E R A S T U R I

Naturala eta hurbila agertzen da, eta berehala erakusten dau bere bizibiderako gogo bizia eta maitasuna. Amaia Aberasturi, Gaitegiz Arteagakoa, aktore gazte eta etorkizun handikoa da, eta 25 urtegaz badaki zer dan Goya sarietarako izendatuta egotea.

Betidanik gura izan dau artista izatea. Dantzagaz hasi zan, Gernika-Lumoko kiroldegian klaseak hartzen ebazan, baina zinea bere bidean gurutzatu zan. "Nire lehen filma, "Zigortzaileak" izenekoa, grabatu nebanean erabaki neban aktorea izatea, 12 urtegaz. Gurasoek castingera eramane ninduen mundu honen errealdadea ikus neian, nire lotsagatik ez nebala ondo egingo pentsatu eben, baina hor hasi zan dana". Akelarre filma mugarri izan da bere ibilbidean, aktore protagonistaren izendapena lortu eban Goya sarietarako, baina hona iritsi arte prestakuntza eta lan prozesu garrantzitsua egon da. "Madrilera joan nintzan interpretaritzaz ikastera, baina

ez nebanez mundu honetara guztia zuzendu gura, aldi berean Haur Hezkuntza ikasten neban. Ez neukan ezertarako astirik".

Pertsonaia zailak gustatzen jakoz, zenbat eta urrunago egon bere izaeratik, orduan eta hobeto. Horrelakoa zan bere papera Akelarren. "Konposeta handiko pertsonaia, erronka bat izan zan eta arrakasta handia izan eban. Goya sarietarako izendapenaren ondorioz, gero eta lan gehiago izan neban". Halanda be, Amaiari egokitu jakon "covidetako Goya sariak" bizitzea, hau da, gala birtual bat, etxetik. "Imajinatzen dozu handikiro ospatzen..., eta ez zan horrela izan. Dana zan etxetik, alkarrizketak, gala... Ez neban alkarrizketarik aurrez-aurre egin, ez neban zapaldu alfonbra gorririk... ez ne-

ban hori bizi izan". Arrakasta honeek maila pertsonalean ez dauela aldatu ziurtatzen dau, eta lan-arloan, ateak zabaldu deustozen arren, castingak egiten jarraitzen dau. "Hau iraupen lasterketa bat da. Agian orain hartuko zaitue eta gero luzaroan egon zaitezke lan egin barik... Mundu hau jende askok uzten dau, eta niri ez jata txarto iruditzen... erabaki gatxa da. Nire aholkua da, uzten badozu, izan dadila zeure erabakia, ez norbaitek esaten deustulako ez dozula balio edo mundu korapilatsua dala. Bakoitzak baloratu behar dau merezi dauen ala ez."

Covid -aren ondoren, Gaitegiz Arteagara bueltatu da bizitzeko, eta Gernika-Lumoko Ross akademian hartzen dau bere

Zineak, ondo egina badago, errealidadearen ispilu izan behar dau.

dantza klaseak barriro. Akademia horretan emon dau oraintsu ikastaro bat haur eta gazteentzat, castingek daukeen garrantziari buruz, bai zinekoak, bai dantzakoak. Busturialdeko jendearen mezu asko jasotzen dauzela diño, mundu honetan zelan sartu ez dakitenak eta informazioa eskatzen deustoe. "Jende guztiari erantzuten saiatzen naz, nik bere garaian faltan bota nebalako. Eskerrak nire amak lan handia

Zinema geure hizkuntza eta kultura bultzatzeko plataforma izan daiteke.

egin ebala castingak edota eskolak bilatzen... Implikatzen diran gurasorik ez badozu, bakarrik sentitzen zara. Emon neban ikastaroa interpretaritzaz eskolei buruzko orientazio- eta aholkularitza-klase bat izan zan, ordezkari baten edo casting-zuzendari baten zeregina ezagutzeko".

ZINEA EUSKARAZ

Bere lehen filma euskaraz izan zan eta orain arteko bere arrakastarik handiena izan da, Akelarre. Geure hizkuntza defendatzen dau eta bere ustez, zineak azpiztituluek,

aurrera egin behar dau, zinea edozein hizkuntzatan, jatorrizko bersinoan, ikustera ohitzeko danok. "Film bat euskaraz ikustea eta ingelesez edo frantsesez azpiztituluek ikustea gauza bera izan behar da. Zinema geure hizkuntza eta kultura bultzatzeko plataforma izan daiteke, euskarazko zinema bultzatu behar da". Anekdotak modura, Akelarre grabatzeko pertsonaien euskara bateratzeko izan ebezen zailtasunak aipatu deuskuz. Amaia bizkaitarra da, eta bere ahiztarena egiten eban aktorea gipuzkoarra zan. "Bi euskara desbardin, beraz, batuaz filmatzea erabaki zan. Nik batuaz berba egiten dot, baina bizkaieraz berba egiten gusturago sentitzen naz. Gipuzkoar euskarara ohituago gagozela uste dot eta horrek beti piztu dost arreta, faltan botatzen dot komunikabideetan bizkaieraz gehiago entzutea. Oso interesgarria iruditzen jat aldizkari hau bizkaieraz izatea".



Argazkia: Andrés García Luján

**EMAKUMEA
ZINEMAREN INDUSTRIAN**

Zoritxarrez, zinema be protagonista izaten ari da emakumezko aktoreen jazarpe-nagaz lotutako barriengatik. Amaiak bizi izan ez dauen egoera. “Ni beti ondo eta errespetuz tratatu naue. Galdetzen deusat neure buruari ea egongo ote dan horrelako gauzak egin dabenik eta nik ezagutuko do-danik... Filmaketetan jaiak izaten dira, baina ez naz joaten. Horregaitik, gauza asko ez dodaz ikusi. Kosta egin jat hori onartzea, ez da ezer gertatzen parrandan ibiltzea gus-tatzen ez bajatzu! Horri esker, ikusi gura ez dodazen gauzak ikustea ebitau dot”. Halan-da be, Amaiarentzat gai bat desatse-gina bada, biluzien gaia, edo, hobeto esanda, zergatik ez dan biluztu gura ezta-baidatzea da. “Borroka egin behar izan dot nire gorputz biluzia ez erakusteko. Biluzia gauza pertsonala da, ezin zaitue behartu. Kontratuan “aktorearen eta zuzendariaren artean adostutako biluzia” jartzen dau, baina niri gustatuko litzakit jartzea, “ez da biluztuko”. Eta hori ez da egiten, “adostuko da” horrek esan gura dau alkarrizketa bat egongo dala eta, beraz, presinoa dagoela. Pertsona gogorra eta zure printzipioeki-ko leiala ez bazara, gatxa da, 20 urtegaz... txarto pasa-tzen da. Nik askotan izan dodaz horrelako alkarrizketak. Zuzendari batzuekaz ez da ezer gertatzen, onartu egiten dabe, eta is-torio hori beste modu batean kontatzeko modua bilatzen dabe, asko eskertzen dan zerbait, eta horrela esaten deustet. Baina beste batzuek trabak jartzen dabez, esaten deusue “goitik” gura dabeela eszena hori. Niri ez jat axola bular bat telebistan ikustea, modu aske batean hezi naue eta ez naz es-kandalizatzen, baina jende guztia ez dago horrela hezita”.

Beti egon dira bi Amaia, eta lan honek nire bi ni horreetaz gozatzeko aukera emoten deust.

Orain dala gitxi, ekoizpen batzuetan, in-timidadeko coach-aren figura existitzen da, pertsona bat, normalean emakumea, zeinagaz aktoreak bere mugak ezartzen dabeen biluziei dagokienez. “Zuzeneko alkarrizketa hori ebitau egiten dozu, bai-na film edo lan guztiek ez dabe figura hau kontratatzen, aurrekontuaren arabera-koa da. Niri biluzia ez jat batere txarra iruditzen, gustatzen ez jatena da egin gura ez daue-nak egin behar izatea. Ezin da presinoa egin”. Emakumeen edertasunaren gaineko

presinoa be oso presente dago zineman. “Aktore lez, bada errepikatzen dodan zer-bait: ez dot ederrena izan behar, ni ez naz modeloa. Asko gertatzen jat ezagutzen ez nauen jendea harritzen dala oso txikia nai-zelako, argala naizelako, eta esaten deus-te! Baina ez naz txarto sentitzen. Zinemak, ondo eginda badago, errealidadearen ispi-lu izan behar dauela uste dot. Alde horre-tatik, zinema errealidadearekiko leialagoa da telesailak baino”.



Goya Sariak 2020. Dior-en lookagaz, Yo Dona aldizkarian. **Argazkia:** Papo Waisman



di da **BATEAN**

Ze emakumezko aktoreagaz lan egitea gustatuko litzakizu?

Zalantza barik, Meryl Streep, bere fisikoa aldatu ez dauen emakumea. Pertsona eta aktorea maite dot. Edozein pertsonaia egiteko gai dan emakumea.

Eta gizonezko aktorea?

Luis Tosar.

Zinegilea?

Zuzendari batek esan eustan Spielberg dala onena..., eta bere film guztiak ikusi nebazan. Orain diñotsut Spilbergekin oso film desbar-dinak egiten dauzela eta hori da nire karreran gura dodana.

Irakasle prestakuntza B Plana da?

Zorte handia daukat. Bi lanbide daukodaz eta biak gustatzen ja-taz. Ez da B plan bat. Irakasle on bat etenbako prestakuntzan dago, eta nik irakasle lez ikastaroak egiten jarraitzen dot. Per-tsona adoretsua naz eta aurrera egingo dot nire bi lanbideetako bategaz.

Hollywooden lan egin gura dozu?

Ingelesekin berba egiten dot eta zentzu horretan egingarria litza-ke. Baina oso etxe-koia naz, nire lanetik txarrena etxetik alde egi-tea da. Nonor nigaz etortzea beharko neuke. Nire ordezkari-ek badakie, Madrilen ekitaldi bat baldin badago, ni etxetik kanpo egongo naizela ahalik eta denbora gutxien.

Zelakoa da, barrutik, zinemaren mundua?

Filmaketa batera datorren jende guztiari bi gauzek harritzen deustse, ze ondo dagoen antolatua guztia, kate-lan bat bezala. Filmaketa batera joaten zarenean jende asko ikusten dozu eta

bakoitza norabide desbardinetan doa helburu beragaz. Tal-de lana da erabat. Atentzioa emoten dauen beste gauza bat gauzak zenbat errepikatzen diran da. Sekuentzia bera 20 aldiz errepika daiteke. Pazientzia handiko lana da, ordu askokoa...

Ego askoko mundua da?

Ego handiko jende asko dago, errespetu bakoa..., aktorearen irudia ikusten dana da..., baina badira kamerak, diru guztia in-bertitu dabenak, argiak, zuzendaria, ekoizleak. Garrantzitsua da lagunak aukeratzen jakitea, noren antza izan gura dozun erabakitzea.

Zelan egiten deustezu aurre castingei?

Epaketak dira, lan-alkarrizketa etenbakoa. Dana neurtu be-har dozu, berbak, arropa..., pertsonaiara egokitu, erabaki asko hartzen dodaz ondo prestatzeko eta testuak zehatz-mehatz aztertu. Nire azken castingetako baterako San Isidro Koope-ratiban erosi neban euskal arropa tipikoa jantzi neban, dana Madrilera eramaneban.

Bateragarria al da aktorea izatea eta Gautegiz Arteagan bizitzea?

Bai, eta kosta egin jat hori frogatzea, uste baita industria hone-tan aktore izateko Madrilen edo Bartzelonan bizi behar dala. Hemen, naturan, txakurrekaz eta nire jendeagaz bizitzeak bake handia emoten deust eta lurrean mantentzen nau. Egia da orain hau egiten dodala, lehen 6 urtez Madrilen bizi izan nazelako, industriaren barruan nagoelako, eta hori da zaile-na. Nire egungo errutina da: casting baterako deitzen deuste, hegazkina hartzen dot, castinga egiten dot eta egun berean bueltazen naz. Egin ahal da ordezkari bat dozunean eta cas-ting-zuzendariak eskura dozuzenean.

Zenbat hegaldi hartzen dozuz urtean zehar?

50etik gora... Aste batean 8 hegaldi hartu nebazan, Marseillea, Madril, Bartzelona, Almeria.... New Yorkera be joan naz publi-zi-dade gai batengaitik

Kanpoan zauzenean..., zure herria lankideei “saltzen” deustezu?

Egia esan, Gautegiz Arteaga oso jende gutxi-ek ezagutzen dau. Mundaka edo Gernika da gehien ezagutzen dabena. Batzuek gaztelua ezagutzen dabe, baina ez dabe kokatzen.

Bi Amaia dagozela esan daiegu? Alfonbra gorriko glamu-rosa eta txakurrekaz Gautegiz Arteagan paseatzen dauena?

Duda barik. Maila pertsonalean bardina naz, baina gero publikoari begira dagoen Amaia dago, printzesa bat sentitzen dana galaz janzten danean, niri moda gustatzen jatelako. Beti izan naz pinpi-rina, eta makillatzea gustatzen jat, eta, aldi berean, lokatzetan sar naiteke nire txakurrekaz. Beti egon dira bi Amaia, eta lan honek nire bi ni horreetaz gozatzeko aukera emoten deust.

Aurreratuko al deuskuzu ze proiektutan ari zaren lanean orain?

Ezin dot asko aurreratu, casting batzuk egin dodaz...proiektu-ren bat badago eta laster zeozer esan ahal izango dot... pozik nago.

Urdaibaiko itsasertzik zabalenero arroken eta labarren arraildurei atxikita, krustazeo berezi horrek, mareen gorabeherak markatzen dabezen mugan bizi danak, olatuek gehien astindutako eremuak aukeratzen dauz morda trinkoetan garatzeko. Ogoñoiko itsaslabarrak, Izaro irlako marearteko arroka amaibakoak edo Gaztelugatxe eta Akatz uharteetako horma tximurtsuak dira lanpernen babeslekuetako batzuk, gune hauek gaur egun babestuta dagoz.

Lanperna, neurri batean bere zoritxarreako, bere zaporea eta testuratan itsaso zakarreko usain eta zaporeen biziena eta

Ba al zenekien?

- Errunaldi bakoitzean 15.000 arrautza sor daikenez lanpernako.
- Lanpernek desplazatzeko gaitasuna galtzen dabe gaztaroan (jaio ondoren 2 aste-2 hilabete).
- Aketxan eta Gaztelugatxan (ustiatu bako eremuak), lanpernen % 24,3k 22,5 mm gaingitzen dabez; Izaron eta Ogoñon (ustiatuak), % 19,2k bakarrik.



"Patacabra" lanperna faltsua (*lepas anatifera*).

Lanpernak

olatuen, aparren eta itsasoaren esentzia

oroigarriena jasotzeko prozesu ia alkimikoa egiteko gai izan da. Itsasoaren oroitza-penik onenak geure mahaietaraino eramateko eroalea bilakatu da.

Itsaski bikain honek argi eta garbi bereizitako bi fase daukoz bere bizitzan. Lehenengoan, larba-egoeran, zooplanktonaren parte da. Bigarrenean, harrietan inkau egiten da sedentario bihurtzeko.

Lanpernak gogor egiten dau bat harrikaz zilindro formako pedunkulu malgu baten bidez, ehundura tximurtsuko azal batez estalia. Bere oinarrian guruin batzuk dagoz, pedunkulua harrian inkau egiten dauen zementu funtsioa betetzen dauen substantzia bat botatzen dabe hauek.

Goiko aldean, karedun pieza batzuk osatzen dabezen oskol bi dagoz. Lanpernaren kapitulu edo apatxak dira, ahoa, digestino-aparatua, zakatzak, barrabilak eta buruaren zati bat babesten dabeena. Horrez gain, lanpernak oxigenazinarako ezinbestekoa dan ur-korrontea sortzeko ateratzen daben sei apendiz lumatsu pare daukoz.

Lanpernak hermafroditak dira, baina ezin dira beren kabuz ernaldu, eta, beraz, beren organo kopulatzailera erabiltzen dabe. Organo hori atzaparraren goialdetik ateratzen dabe, eta gorputza baino luzeagoa da, hurbileneko lanperna ernaltzeko.

Hatx gaineko morda trinkoetan batuta bizi dira, Atlantikoko ipar-mendebaldeko marearteko lerroan (Bretainiatik Afrikara) eta Mediterraneoan.

Lanpernak itsaski preziatuenetako bat dira.

Lanpernak, itsaskirik preziatuenetakoa, presino handia jasaten dau gaur egun, merkataritza-eskaera handia dagoelako, eta tradizionalki Galiziatik eta Kantauritik etorri ohi dan lanperna-gaz batera, gero eta sarriago aurki daiteke Marokoko edo Frantziako lanpernak.

Lanperna "patacabra" edo lanperna faltsua (*Lepas anatifera*) ez da jangarria, eta batzuetan gure hondartzetan aurki daiteke,

objektu flotagarrirei, egurrei, botilei, itsasontziei edota sokei atxikita.

Espezie horrek ekarpen interesgarria egin deutso espezieen eboluzinoa aztertzeari. Charles Darwin naturalista ingelesak lanpernak aztertu ebazan ia hamarkada batez. Ikerketa honen ondorioak erabakigarriak izan ziran espezie berak denboran zehar izan dauen bilakaera ulertzeko orduan. **UM**

ERREZETA



Zelan egosi lanpernak

Lapikoa urez bete, lanpernak estali arte. Gehitu itsas gatza, 50 gramo ur litro bakoitzeko. Ura irakiten hasten danean, gehitu lanpernak eta itxaron.

Ura irakiten hasten danean barriro, minutu bat itxaron eta erretirau. Ontzi sakon batean jarri eta oihal bategaz estali behar dira, botatzen daben lurrunk egosketa errematau daian.

Azkenekoz, ez itxi hozten.

OPTIKA
ENTZUMEN ZENTROA

GERNIKA-LUMO
Domingo Bernaola, 1
94 625 03 23 / 94 625 04 51

QR code

Facebook, Instagram icons

adi!

ARRATZU 2023

bizi
kle
tan
FEST

Ezagutu Gaitegiz Arteaga
pausoz pauso

WATERLANTIA TURISMOA

MARIGO- RRINGO,

KAKARRALDO
MAITAGARRIAK


Bere forma esferikoagatik, puntu txikiak daukozen kupula ñimiño bat modura, bere koloreagatik, kaltebakoak direlako eta izurriteen kontrolatzaile lez funtzio garrantzitsua betetzen dabelako, intsektu koleoptero hau ia mundu guztiari gustatzen jakon bakanetakoa da.

Marigorringoak *Coccinellidae* familiakoak dira, eta udabarria iristean ikusten doguz geure ortu eta zelaietan. Tximeletekaz lehiatzen dira giza mesedearen alde, eta euren irudi delikadu eta adiskidetsuaz haratago, intsektu honek funtzio ekologiko garrantzitsua betetzen dau. Animalia haragijaleak eta harrapari jatunak dira, eta beste intsektu batzuk jaten dabez, esaterako, kotxinilak, beldarrak, akaroak eta, batez be, zorriak. Oso lagungarriak dira izurriteen kontrol biologikoan, batez be kontuan hartzen badogu marigorringo heldu bat gai dala uda batean horrelako mila zomorro baino gehiago kontsumitzeko. Gainera, ehunka arrautza jartzen dabez zorrien eta antzeko intsektuen kolonietan. Zabaltzen direnean, larbak azkar elikatzen hasten dira eta intsektizida natural bihurtzen dira. Izurriteei aurre egiteko eraginkortasuna dala eta, nekazari askok landaketetan sartzen dabez marigorringoak. 1916an arlekin marigorringoa (*Harmonia axyridis*) Asiatik sartu zan Ipar Amerikara, zorriak kontrolatzeko.

Marigorringoak, mehatxatuta sentitzen danean, hilarena egin daike, eta bere hankek oso zapore desatseginako fluido bat jariatzen dabe babesteko, eta bitxia da, hain zuzen be, gizakientzat daukon itxura lagunkoiak uxatzaile lez balio deutso eta harraparietatik, armiarma, hegaztietatik, igeletatik, liztorretatik edo libeluletatik, babesten deutso; izan be, lehen marigorringoak jaten saiatu diran animaliak euren kolore politagatik eta puntuengatik identifikatzen dabez.

Kakarraldo hau munduko edozein lekutan aurki daikegu, hiri, zelai, lorategi edo mendietan, landaredia dagoen guztietan. Gaztelerazko izendapen gehienetan *mariquitas* deitzen jake, Bizkaian *solitaña*, Katalunian *marieta* eta Galizian *marusiña*. Klima beroa gustatzen jake, eta hotz garaietan bizirik irauteko, geldirik egoten dira. Animalia bakartiak izan arren, taldean hibernatzen dabe, alkar babesteko eta hotzetik babesteko.

Itxura lagunkoiak harraparien aurrean uxatzeile lez balio duetso.



METAMORFOSIA

Marigorringoak metamorfosi osoa bizi-tzen dau bere bizitzan zehar. Bi hilabeteke epean, lau bizi-etapa bizi-tzen dauz: arrautza, larba, pupa eta heldua.

Ernaldu ondoren, emeek berrogeita hamar arrautza inguru jartzen dabez hostoen gainean, milimetro bat luze besterik ez dira arrautzak. Astebete baino gutxiagoan hasten dira larbak jaiotzen, marigorringo helduekaz zerikusirik ez dauko euren itxura, eta gosez hasten dira jada zorriak jaten. Hurrengo pausuan, larbak geldirik geratzen dira landare edo harri bati helduta, eta pupa-egoeran sartzen dira; puntu horretan, elikatzeari ixten deutsoe, eta gorpuzta erabat eraldatzen

hasten jake: hegala eratzen dira, antenak eta hankak luzatu egiten dira. Astebeteren buruan, heldua da eta hegoak zabaltzen dauz.

5.000 espezie inguru dagoz, eta ezagunena gorria bada be, badi-ra kolore desbardine-takoak, horiak, laranja-

edo berdeak. Tamainari dagokionez, 4 eta 10 milimetro artekoa baino ez da, urtebete inguruko bizi-itxaropenagaz, espezie batzuk 3 urteko bizitzara iristen dira. Mundu osoko kulturek zorte onagaz lotzen dabe marigorringoa, eta horretan zerikusi handia dauko izurriteen kontrolatzaile biologiko lez egiten dauen lanak. Esaten dabe, marigorringo bat gainean parau egiten bada, desio bat eskatu behar dala barriro hegan hasi baino lehen, horrela desioa bete egingo da. **UM**

Solitaña, Bizkaierazko berezitasuna, marigorringoaren gaztelerazko izenen katalogo zabalaren parte dana (Coccinella septempunctata)

Xixili

BERMEOKO DAMA



Argazkia: Bermeoko Udala

Euskal Herrian ugariak dira kondaira mitologikoak izaki apartekaz, beti onberak ez ziran pertsonaien istorio zoragarriak. Urdaibain, lamien istorioak nabarmentzen dira, ibaiei, itsasoari eta arrantzaleen munduari lotutakoak.

Bilbok 1978an Marijaia sortu eban eta Bermeo ez zan gutxiago izango. Pedro Laspiur (margolaria eta *Benito Barrueta Arte Alkarteko* kidea), Xabier Pagazartundua (arkitektoa eta artista), Iñaki Markaida (ingeniaria eta argazkilaria) eta Ana Carmen Uriarte (garai hartan oso lotuta egoana Bermeoko kultura-giroagaz), bermeotarrek jaietarako ikur propioa sortzeko ekimena izan eben. Bertako historia, tradizino eta etnografiari lotutako figura bat planteatu eben. *"Marijaiaren antzeko*

zeozer egin gura izan genduan, baina geure herriari lotuta. Barandiaranen testu bat irakurri genduan lamia baten kondaira bati buruz, eta gustatu egin jakun: gainera, irudia oso polita iruditu jakun. Horregaz hasi ginan zirriborroa egiten", gogoratzen dau Pedro Laspiur ekimenaren bultzatzaileetako batek eta *Benito Barrueta Arte Alkarteko* kideak. Horrela jaio zan Xixili. *"Guri bururatu jakun, sonoridade politeko izena da. Harrigarria eta musikala iruditu jakun eta arrakasta handia izan dau"*, adierazten dau Laspiurrek.

Bere gorputzaren goialdea emakume eder bat da eta behekoa arrain batena, buzta-na eta ahate oinak daukoz. Bermeotarren aurreko aurkezpena 1979ko Andra Mari eta Santa Eufemia jaietan izan zan. Ordutik, jaietako protagonista da. Balkoian dago txupinazoaren egunean eta jai-ekitaldi guztietan, eta, irailaren 16an, jaiei amaiera emoten jake panpina erretzeagaz batera. Egun horretan *Agur Xixili...!* kanta eza-guna kantatzen da. Xixili lamia bat da, beraz, ulegorri luzea dauko. Garai batean ohikoa zan ulea kentzea eskumuturrean lotuta eramateko, baina Xixiliren ule-mataza errespetatzeko orain ardi-ule zatiak banatzen dira. *"Ideia oso sinple batetik arrakasta izan dauen zerbait sortu da. Bermeoko ikurra, geure folkloreaki lotutakoa"*, baloratzen dau Pedro Laspiurrek.

Xixiliren aurkezpena 1979ko Andra Mari eta Santa Eufemia jaietan izan zan



Xabier Pagazartundua, lehenengo Xixiligaz, 1979.

LEGENDA-LAMIAK

Xixili sortu eta gutxira sortu zan Lameranpunteko dikean, portuko bokalean, kokatutako eskulturaren proiektua. Lanak lamia bat irudikatzen dau, eta 1980an inauguratu zan, kokapen estrategiko batean,



Xixiliren eskulturaren sustatzaileak
Argazkia: Iñaki Markaida

portuko bokalean. Leku horretatik, izaki mitologiko horrek arrantzaleei agur esaten deutse arrantzan doazenean, eta ongietorria emoten deutse bueltatzean. Esku batek itsasoa seinalatzen dau eta, beste eskuan, orrazi bat eusten dau. Orazi horregaz, bere ule-mataza luzea txukuntzen dau. Mistizismoz beteriko imajina oinarri baten gainean altxatzen da. Oinarri horrek hainbat arrantzale-buru irudikatzen dauz, ahoa zabal-zabalik, itsasoan itota, eta Lamiarenetik Lameranpunteko arroketaraino jaisten ziran lamien herriko kondaira gogorarazten dau. Kondaira honen arabera lamiak bajatzen ziran arrantzaleak erakartzeko, euren edertasun apartagaz maitemintzeko, eta behin besoetan eukezela, Ogoñoiko lurmuturreraino eramaten ebela itotzeko (*lamiñek bajatu itsosoko albora, enamora mariñeruek, eta eurek artu, eruen Ogoño aspire eta bertan il*). Greziar mitologiako sirena-kantuen lilurakeri eutsiezina gogorarazten dau kontakizun beldurgarri honek. Legenda honeek lau bermeotarrak liluratu eta Xixili sortzeko inspiratu ebazan. *"Itsasontziz ateratzen zarenean eskultura da Bermeo-*



Argazkia: Bermeoko Udala

Eskulturak benetako emakume baten aurpegia dauko, bermeotar gazte bat.

tik ikusten dozun azken gauza, eta lamina orrazten ari dan arren, urrunean agurtzen zaituela dirudi", dino Laspiurrek.

Bitxikeria lez, eskulturak benetako emakume baten

aurpegia daukola azpimarratu behar da. Iñaki Markaidak argazki batzuk egin eutsozan bermeotar gazte bati, eta gero José Luis Fernández Butrón getxotar eskultoreak modelo lez erabili eban eskulturaren aurpegiari forma emoteko. Bermeon bizi-tzen jarraitzen dauen emakume bat.

Xixilik bi historia batu dauz, bi proiektu. Alde batetik, eskultura, eta bestetik, jaien sinbologia. Azken honen ospeak artelanari izena aldatu deuto. Orain dala gitxi barriztau da artelana, desagertutako orrazia itzultzeko. **UM**

Documentazioa: *Itsosupeteko ondarea Bermeo,* Asier Romeroren blog-a

**Axola zaiguna
zaintzea,
zure esku,
gure esku.**



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeauas.eus

TOURDAIBAI

Urdaibaiko turismo
jasangarrirako elkarte

Tourdaibai
Urdaibaiko turismo jasangarriko elkarte

**ETORKIZUNAK
BATZEN GAITU**
* Nos une el futuro



688 638 421
info@tourdaibai.com



BILBAO
BIZKAIA
be basque

BILBAO — BIZKAIA
uneXpected



Aurkitu izenik laburrena
duen herria.